

Funtsesko baliabideak

AKIRAren negozioak behar dituen baliabide nagusiak honako hauek dira: alde batetik, material baliabideak, hala nola denda fisikoa, tailerreko espazioa, josteko makinak eta material jasagarriak (kotoi organikoa, ehun birziklatuak eta tindagai naturalak). Bestetik, baliabide digitalak funtsezkoak dira: denda onlinea, sare sozialetako kontuak eta marketin digitalerako tresnak. Gainera, markaren nortasuna, diseinu eksklusiboak eta moda jasagarriaren inguruko ezagutza osatzen dute baliabide intelektualen multzoa. Giza baliabideen artean, diseinatzaile gazteak, tailerreko langileak, bezero-arretarako taldea eta komunikazio arduradunak daude. Azkenik, ezinbestekoak dira aliantzak: hornitzaile jasagarriak, tokiko kooperatibak, influencer eta sortzaileekin egindako lankidetzak, eta AKIRA inguruan sortzen den komunitate aktiboa.